

EHZ

SORGIN ZELAIAN, GUREA ASMA
UZTAILAK 1/2/3 JUILLET
LEKORNE – MENDIONDE
"BAIONATIK 20 MIN DE BAYONNE"



CRYSTAL FIGHTERS

NNEKA . KADAVAR . MAMMUT
FERMIN MUGURUZA & NEW ORLEANS
BELAKO . ALO WALA . CLAP! CLAP!
WILLIS DRUMMOND . THE RUMJACKS
LA YEGROS . KAVIAR SPECIAL . GOZATEGI
NINA COYOTE ETA CHICO TORNADO . EL-TXEF-A
FRANCKY GOES TO POINTE A PITRE . ZIZIO
ESKEAN KRISTO . LUMI . MC ONAK . HOLAKO DELUXE
KUKAI . BILAKA . TAILERRAK...

EUSKAL HEDABIDEAK, EGUNERO EUSKARAZ INFORMATU



Deskubritze eta askatasun gose zira ? Zato EHZ festibalaren XXI. Ediziora ! **Kontzertuak, ikusgarriak, haurren xokoa, konferenziak, tailerrak, dokumentalak eta animazio** andana proposatuz mikrojendarte aske eta engaiatu bat sortzen du festibalak! Burujabe, zapalkuntzarik gabeko Euskal Herri aske bat amesten dugulako: euskaraz adierazteko libre den jendartea, bere historiaz libre den jendartea, bere praktika kulturalak, mugaz gaindi, libreki bizi ditzakeen jendartea.

NOR GIRA ? « Sorgin zelaian gurea asma »

Sorgin bihurtzen gara Lekornen, hiru egunez gureganatzen dugun Garroko eremuan. Sorgin horiek ez dira guretzat pertsona desberdinak; denak gira askatasun gosez gauden genero gabeko sorgin zapalduak. Sortzen dugun espazio hori ez da neutroa; gure egiten dugun espazio horrek zentzu bat dauka. Burujabetza nazionalaren eta sozialaren ideian oinarritzen den gogoeta kolektibo baten emaitza da. Asma dezagun gure jendarte ideala: autogestionatua, internazionalista, euskalduna, diskriminazio mota ororen kontrakoa, feminista, logorik gabekoa, laguntzailegoak eramana eta askoz gehiago ere !

*Viens faire le plein de découvertes et de libertés et fais un tour à la XXIème édition du festival EHZ ! Entre **concerts, spectacles, ateliers, conférences, documentaires, coin enfants et autres animations** le festival crée une société libre et engagé. Libres, nous construisons notre Pays basque; qui s'exprime librement en euskara, qui est maître de son histoire, de sa culture et qui construit sa propre société.*

QUI SOMMES NOUS ? « Sorgin zelaian gurea asma »

Nous devenons des sorciers-ères à Lekorne, dans cet espace de Garro que nous nous approprions durant trois jours. Ces sorciers-ères ne sont pas pour nous des personnes marginales, nous sommes tous ces sorciers-ères sans genre et opprimées en quête de liberté. Cet espace que nous créons n'est pas neutre ; ainsi ce lieu que nous investissons a un sens. Il est le résultat d'une réflexion collective basée sur l'idée de souveraineté, tant nationale que sociale. Inventons notre société idéale : autogérée, internationaliste, euskaldun, contre toutes formes de discriminations, féministe, No Logo, portée par le bénévolat et bien plus encore !



CRYSTAL FIGHTERS

Crystal Fighters taldea Erresuma Batuetan ikus daitekeen zuzenezko kontzerturik biziena bezala kontsideratua da. Negu osoan, jatorriz Londres/Brooklyn-en egoten den taldeak, studioan bere hirugarren albuma landu du Euskal Herria, Los Angeles eta Londresen artean. Aspalditik igurikatuak, mundu mailako talde hau festibaletaz jabetuko da 2016 urte osoan zehar.

Crystal Fighters est considéré comme offrant l'un des plus excitant live du Royaume-Uni. Durant tout l'hiver, le groupe basé à Londres / Brooklyn a travaillé en studio leur troisième album qu'ils ont créé entre le Pays Basque, Los Angeles et Londres. Attendus avec impatience, ce groupe à la renommée mondiale va conquérir les festivals jusqu'à fin 2016.

BELAKO

2013an lehen aldiz EHZko eszena zapaldu ondotik, Belako Festibaleko taula gainera dator berriz. Kantu bikainak, eszena gaineko presentzia, gaztetasuna, zuzeneko harrigarriak... Mungiatik datoz, egiten dutenaz gozatuz, eta beren gaztetasunaren aldean sekulako heldutasuna erakutsiz.

Après une première scène à EHZ en 2013, Belako revient sur les planches du Festival. Superbes chansons, présence sur scène, jeunesse, lives impressionnants; post punk, noise, electronica... Ils profitent de ce qu'ils font et le transmettent avec une maturité en décalage avec leur jeunesse...



KAVIAR SPECIAL

Rennes-eko taldeak energia izuragarria garatzen du eszena gainean. Kaviar Special taldeak eragin desberdin ugari erakusten ditu pop neurrigabetik, rock garage zaintsu, beltz eta bortitz batera. Nahasketa heterogeno horrek dantzaraziko zaitu, eskainiko dizkizuten leloak ezin burutik kenduz.

Les rennais développent une énergie impressionnante sur scène. Le groupe dévoile des influences variées et se permet un grand écart entre une pop débridée, un rock garage nerveux et un psychédéisme sombre et brutal. Une hétérogénéité qui fait danser; les thèmes et refrains imparables restent inmanquablement en tête.



2ZIO


Euskal hip hopari aniztasuna ekarri dio 2ZIOk sentimenduen sakontasunetik aldarriz eta kritikara errimaz errima hitzak lotuz. Rapa maite dutenentzako opari bat.

2ZIO a apporté de la diversité au paysage du hip hop basque grâce à son rap sombre et revendicatif. Un cadeau pour ceux qui aiment le rap!

BILAKA

Ametsik gabeko mundu batean galdurik, gazte zenbaitek arbasoen errituak eta mitoak berriz interpretatzen dituzte. Negu minean, beren irudimenaren oihanean, « inbertsio zeremonia » hasten dute. Kontzertuen artean, Bilaka kolektiboaren dantza ikusgarriak aho zabalik utziko du publikoak.

Perdus dans un monde désenchanté, des jeunes gens réinterprètent les rites et les mythes de leurs ancêtres. Au cœur de l'hiver, dans la forêt de leur imagination, ils donnent lieu à une « cérémonie d'inversion ». Entre deux concerts, le spectacle de danse du collectif Bilaka vous laissera bouche bée.



ALO WALA

MIA bezalako Tropical bassaren erraferentzia gisa, Alo Walak Cumbia eta musika elektronikoan bidaiaraziko zaitu. Etorkizuneko estilo musikal baten enbaxadore, kontinenteak eta planetak nahasten ditu taldeak, gaua bukatu arte dantza egiteko.


Figure de proue de la Tropical bass au même titre que MIA, Alo Wala propose un voyage aux confins de la Cumbia, et de la musique électronique. Ambassadeur d'un genre musical futuriste, ce combo fusionne les continents et les planètes pour faire danser jusqu'au bout de la nuit.



MAMMUT

Islandiako Reyjavik herrian, 2004an sortu zen Mammut Rock Progresibo estiloko taldea. European gutti jo duenez, festibalean talde harrigarri hau entzuteko parada ezin hobea izango duzu!


Créé en 2004 à Reykjavik en Islande, Mammut est un groupe de Rock Progressif qui a pour particularité de chanter en Islandais. Mammut n'a que très peu joué en Europe, une occasion donc de venir découvrir ce groupe étonnant et détonnant au Festival!



CLAP CLAP

Clap! Clap! produktore italiarra maisua bilakatu da tribu musika eta musika elektronikoaren arteko nahasketan. Eszenatokian erakutsiko duen presentzia harrigarriak, gau osoan zehar dantzaraziko zaitu!

Le producteur italien Clap !Clap ! est passé maître dans le mélange des musiques électroniques et des musiques tribales. Doublé d'une prestance sur scène tout simplement hallucinante, vous allez vous déhancher à ne plus en pouvoir jusqu'au bout de la nuit.



NNEKA

Hip hop eta soul estiloetan kantatzen duen germano-nigeriar jatorriko artista da Nneka. Bere hitzek bere historia eta Nigeriako historia kontatzen dituzte, baita Europan pasatako garaiak ere. Kapitalismoa, pobrezia edo gerla bezalako gaiak aipatzen ditu, mezu indartsuak zabalduz.

Nneka est une chanteuse de hip hop et soul germano-nigériane. Ses paroles reflètent une grande partie de son histoire et de la vie au Nigeria ainsi que du temps qu'elle a passé en Europe. Elle aborde des thèmes divers tels que le capitalisme, la pauvreté et la guerre en transmettant des messages moraux très forts.



FERMIN MUGURUZA & NEW ORLEANS BASQUE ORKESTRA

Katrina urakana pasa eta 10 urtera, Fermin Muguruza New Orleans-eko musikariekin elkartu da. Hortik, dokumental baten (Nola?) eta 10 kanturen grabaketaren proiektua sortzen da. 4 kontzertu baizik ez ditu emanen Euskal Herrian eta festibalean ikusteko xantza izanen dugu. Aspaldiko laguna da Fermin, atsegin handiz ikusiko duguna EHZN.

10 ans après l'ouragan Katrina FERMIN MUGURUZA rencontre des musiciens de la Nouvelle-Orléans. De cette démarche né le projet d'un documentaire (Nola?) et l'enregistrement de 10 chansons. Il ne fera que 4 concerts en Euskal Herria et nous auront la chance de l'accueillir au festival. Fermin, un ami de longue date qui nous fera le plaisir de revenir à EHZ !



KADAVAR

2010ean Berlinen taldea osatu ondotik, hiru alemanak « BlackSabbath » moduko rock stoner psikodeliko retroaren buru gisa agertu dira. « Lupus-ek », « Dragon-ek » eta « Tiger-ek », bizareta ileak airean, harkaitzak bezain riff pisuak eskaintzen dituzte. Uda honetarako iragarri dute beren lan berria Nuclear Blast-en.

Formé à Berlin en 2010, Les trois allemands se sont vite imposés comme les chefs de file du rock stoner psychédélique rétro «à la Black Sabbath». « Lupus », « Dragon » et « Tiger » toutes barbes et tignasses dehors, envoient des riffs lourds comme des parpaings. Leur prochain album est attendu cet été chez Nuclear Blast.



WILLIS DRUMMOND

Willis Drummond taula gainera itzuliko da EHZN eta udan zehar arras kontzertu guti emanen dituzte. Willis Drummond unibertsoa abiadura handiko kosmos bat da, "Amorrua gora botatzen" duen mundu bat. Unibertso horren barruan "A ala B" mandatu bat da, abisu bat, zuzena eta freskoa izatea axola ez zaion mezu bat. Motörhead edo TAD edo hasierako Jesus Lizard talde berezietako klasizismoa mantentzen badaki, baita 90 hamarkadaren egituren joera eta Pearl Jamen zaporea.

Willis Drummond fera son come back à EHZ avant quelques dates durant l'été. L'univers de Willis Drummond est un cosmos à grande vitesse, un monde qui expulse sa rage avec force. Dans cet univers « A ou B » est un message, un avertissement, il lui importe peu d'être froid et direct. Willis Drummond sait maintenir à la fois, le classicisme des Motörhead, TAD, ou encore des débuts de Jesus Lizard, mais aussi l'évolution des structures des années 90 et la ferveur de Pearl Jam.

Ikusgarriak Spectacles

AURTEN ERE ANIMAZIO ANDANA IZANEN DIRA EGUNEAN ZEHAR. GOIEZ, AKANPALEKUAN, YOGAREN BIDEZ MUSKULUEN ETA BURUMUINAREN IRATZARTZE GOXO BAT PROPOSATZEN DAUZUGU. AFRIKAR DANTZA ETA PERKUSIO IKUSGARRIA ESKAINIKO DIGUTE **ESKUZ ESKU** ELKARTEKOEK ETA NAHI DUENAK HAIEKIN DANTZATZEKO PARADA ERE IZANEN DU! JOAN DEN URTEKO HARITIK SEGITUZ, **BERT'SHOW** SAIO BEREZI BAT PROPOSATZEN DIZUEGU. MUNDU OSOAN EZAGUNAK DIREN LAU BERTSOLARI LEHIATUKO DIRA JOKO EZAGUN BATEAN. IKUSGARRIETAN, "**STRIPTYQUE**", GURE BURUAK EZAGUTZEKO GOMITA BAT, ETA **ZER DUZU AMY?** ANTZERKIA: DAISYK EDOZEIN GAUZA EGINGO LUKE AMY WINEHOUSEN AHOTSA ETA TALENTUA IZATEKO. AMY-REN HERIOTZAREN BERRIA UKAITEAN, LONDRESERA DOA. ETA EGUN OSOAN GIROA BEROTZEN POLEKELEKE TXARANGA!

CETTE ANNÉE NOS ANIMATIONS DE JOUR VOUS EN METTRONS PLEIN LES YEUX ET LES OREILLES. POUR RÉVEILLER VOS MUSCLES ET TOUTE QUIÉTUDE ON VOUS PROPOSERA UNE SÉANCE DE YOGA AU CAMPING ! LES MEMBRES D'ESKUZ ESKU VOUS FERONT DANSER SUR DES RYTHMES AFRICAINS. UN BERT'SHOW SPÉCIAL VOUS SERA PROPOSÉ, QUATRE BERTSOLARI MONDIALEMENT CONNUS S'AFFRONTENT LORS D'UN JEU. POUR CE QUI EST DES SPECTACLES "STRYPTIQUE" ET LE ONE-WOMAN SHOW ZER DUZU AMY ? : DAISY FERAIT N'IMPORTE QUOI POUR AVOIR LA VOIX ET LE TALENT D'AMY WINEHOUSE. LORSQU'ELLE APPREND LA MORT D'AMY, ELLE PART POUR LONDRES. ET POUR COURONNER LE TOUT LA TXARANGA POLEKELEKE ANIMERA LE SITE !



NIÑA COYOTE & CHICO TORNADO

Niña Coyote eta Chico Tornado Ursula Strong (Bateria) eta Koldo Soret (Gitarra eta ahotsa) donostiarrek osatzen dute. Bi musikari eta bi instrumentu izanik banda soinua lortzen dute euren zuzenekoetan Primavera Sound edo Azkena Rock bezalako nazioarteko festibaletan jotzera eramantzen dituen.

Le groupe Niña Coyote et Chico Tornado est composé d'Ursula Strong (à la batterie) et de Koldo Soret (guitare et voix). Grâce à ces deux musiciens de talent et à leur instrument, ils obtiennent une bande son dévastatrice, qui les a notamment amené à jouer aux festivals internationaux Primavera Sound ou Azkena Rock.



LUMI

Elektropop bikotea 2014an sortu zen. Nahia Zubeldia (ahotsean eta gitarra elektrikoan) eta Matthys (makinetan) ditu kide, eta urruneko ertzetara eramaten gaituzte. Bikote horretan, elkarri kontra egin baino, makinaren modernotasunak eta euskarazko hitzek bat egiten dute.

Dernière découverte du collectif Moï Moï Lumi excelle dans sa proposition Folk électro. Ce duo composé de Nahia Zubeldia (à la voix et à la guitare) et Matthys (aux machines), nous porte vers des rivages lointains où le modernisme électronique et les textes ne font qu'un.



EL_TXEF_A

El_Txef_A-k musika berezi eta konplexua aurkezten du. Plazer hutsaz gain, bere helburua, pertsonak proposatzen duen musikari identifikatzea da. Ez da arraroa artista hau Europa edo Amerikan zehar jotzen ikustea. Gaztea izan arren, mundu osoko goi mailako klub ainitzetan inposatu da.

El_Txef_A signe une musique complexe et spécifique. Son but était de créer un son auquel les gens pourraient s'identifier, au delà d'une simple sensation de plaisir. Il est fréquent de le voir jouer chaque semaine en Europe ou en Amérique. Malgré son jeune âge, il s'est déjà imposé dans plusieurs clubs de grande renommée.



FRANCKY GOES TO POINTE À PITRE

Palmondo puzgarri edo kolore saminetako atorrekin ez fidatu, hirukote horrek harrizko zaitu! Energia liluragarri baten bidez, Chicago, Bamako eta Antilletako musiken arteko zubiak eraikitzen lortzen dute.

Formation foutraque reconnue unanimement pour ses palmiers gonflables, ses chemises qui brûlent les yeux et ses claquettes dépareillées, le trio a réussi à construire un pont entre Chicago, Bamako et les Antilles sans y avoir jamais foutu les pieds.

KUKAI

Lehen aldiko EHZ festibalean Kukai konpania jinaraziko dugu ! Sorbatza, Kukai Dantza eta La Intrusa konpainiaren (Damián Muñoz eta Virginia García) elkarlanetik sortutako ikuskizuna da. Sorbatza oreka berrezarri nahi duten lau gizonezkoen arteko erituala da. Gerra sinbolo bat, bakea eraikitzeko; bizitzaren sinbolo bat heriotzari konjuria egiteko. Zato bakarrik, lagunekin edota hurrekin dantza sorkuntza gozatzera !

Pour la première fois la compagnie Kukai se produira au festival ! Sorbatza est le rituel de 4 hommes à travers lequel ils tentent de restaurer l'équilibre. La compagnie Kukai et La Intrusa (Damián Muñoz et Virginia García) nous dévoile sa dernière création autour d'un symbole de guerre pour construire la paix, un symbole de vie pour exorciser la mort. Viens seul, avec tes amis ou tes enfants pour découvrir cette création de danse !




IGANDEA DIMANCHE

LA YEGROS

Buenos Aireseko eszena alternatibotik zuzenean etorria, La Yegrosen kumbia modernoa, tradizio folklorikoa eta beats suntsitzaileen arteko nahasketa polita egiten du. Dudarik gabe dantzaziko zaitu, erritmo latinoamerikar eta musika elektronikoaren elkartzeko sutsuari esker !

Directement issue de la scène alternative de Buenos Aires, La Yegros, fusionne la cumbia contemporaine, avec la tradition folklorique profonde et des beats ravageurs. Elle vous fera sans aucun doute danser sur ce mélange explosif de rythme latino-américains et de musiques électroniques!



THE RUMJACKS

Dropkick Murphy's taldearen gisara, 2008tik The Rumjacks taldeak, dantzaziko zaituen Irish Punk indartsua proposatzen du. Haien kantuak Punk estiloa eta irlandesezko musika tradizionalak nahasten ditu, Irlandako pub eta bestetara bidaiara eskainiz. Musika talde honek bere energiak harrizko zaitu !

Dans la plus pure lignée des Dropkick Murphy's, The Rumjacks distille depuis 2008 un Irish Punk puissant et dansant. Leurs chansons mélangent Punk et musiques traditionnelles irlandaises, nous faisant voyager dans les pubs et les fêtes d'Irlande. Vous risquez d'être surpris par l'énergie qu'ils dégagent sur scène !





HOLAKO DELUXE

Holako Taldea azken 10 urteetan Euskal Herriari gandi ari den dantzaldi talde bat da. Eta 2016an « Deluxe » itzuli baten egitea deliberratu du 4 musikaritik 8 musikaritarara pasatuz ! Anje Duhaldetik Gatibura pasatuz, Tapia ta Leturiatik Xutik Taldera edo zergatik ez Xabier Letetik Zea Mays-era !

Holako Deluxe est un groupe de bal qui anime l'Euskal Herri depuis maintenant dix ans. C'est en 2016 qu'ils forment leur version « Deluxe » en passant de quatre à huit musiciens ! De Anje Duhalde, en passant par Gatibu, Tapia ta Leturia, Xutik ou encore Xabier Lete et Zea Mays, tous les classiques se verront révisités !

MC ONAK

Hurbil da Irlandako malenkolia, The Pogues-en lotsagabekeria, gaztaroko lehen mozkorretatik presente daukagun euskal rock amorratua, estiloz harago edonor blaitzen duen The Clash eta tarteka parranda gogoia. Lagunartean kantatzeak ematen duen kolektiboaren parte izateak asetzen du McOnak.

La mélancolie irlandaise, l'insolence de The Pogues, le rock enragé de nos ivresses de jeunesse imbibé du style de The Clash. Rien de tel que l'énergie festive de McOnak pour entonner une chanson entre amis.



GOZATEGI

Gozategi Taldea musikari multzo bat baino musika eta bizitza ulertzeko pertsona kuadrilla bat da. Gauzak erraiteko motibazioa duen taldea da Gozategi, beti ere, ideologiak eta pentsatzeko modu ezberdinak errespetatuz. Gizartearen arazo, gaitasun, kezka, beldur eta aniztasuna jorratzen dugu gure kantu umoretsuetan.

Au-delà du groupe de musique, Gozategi est un groupe passionné, qui aime dire les choses, dans le respect des idéologies de chacun. Gozategi traite des problèmes de société, des peurs et des inquiétudes, dans ses chansons légères et optimistes !

ESKEAN KRISTO

Eskean Kristö Arratiako (Bizkaia) taldeak 2. diskoa argitaratu du: Ezkurrik onenak. Hendrix, Page, Bolan, Morrison, Etxart... eta enparauen lorratzen atzetik dihardute. Zuzenekoetan ez dira su-eten zale, show elektrikoak muntatzen dituzte, High Voltage Rock&Roll!

Le groupe Eskean Kristö d'Arratia (Bizkaia) a sorti son 2ème album : Ezkurrik onenak. Inspirés par Hendrix, Page, Bolan, Morrison ou Etxart, ils s'emparent des empreintes de cette ère emblématique. Leur live sera un show électrique, High Voltage Rock&Roll!



Ikusgarriak Spectacles

GOIZEAN, DANTZATU NAHI DUTENENTZAT **MUTXIKOAK** IZANEN DIRA. GERO, **KING SIZE** ZIRKO KONPANIA PENTZEAN ARIKO DA; AIREKO PROPOSAMEN BAT EGINDU DUTE ! "LIBRE SI ON VEUT" PODEREAREN INGURUKO ANTZERKIA IKUSTEKO PARADA UKANEN DUZUE. HORREZ GAIN, **BOKALE BRASS BAND**, **KAKIKOMOKEKE** ETA **POLEKELEKE** TXANRANGAK GUNEA ALAITUKO DUTE ETA EGUERDIAN BATTLE BAT EGINDU ! BESTALDE, **AMA'TUR** EUSKARAZKO SAKELEKO ANTZERKIA ESKAINIKO DIZUEGU, EUSKARAZ . EGUNEAN ZEHAH "MYSTÉRIEUSES COIFFURES" IBILTARIAK IZANEN DIRA ...

LE MATIN, IL Y AURA DES **MUTXIKO** POUR CEUX QUI SOUHAITENT DANSER ! ENSUITE, ALORS QUE LA COMPAGNIE **KING SIZE** S'ENVOLERA POUR VOUS OFFRIRE UN SPECTACLE DE CIRQUE, VOUS POURREZ ASSISTER À LA PIÈCE DE THÉÂTRE "LIBRE SI ON VEUT" QUI TRAITE DES JEUX DE POUVOIRS. LES **TXARANGA BOKALE BRASS BAND**, **KAKIKOMOKEKE** ET **POLEKELEKE** SERONT AUSSI DE LA PARTIE ET S'AFFRONTERONT AU MILIEU DU CHAMPS LORS D'UN BATTLE ! LA PIÈCE **AMA'TUR** VOUS SERA PROPOSÉE, EN EUSKARA. DURANT TOUTE LA JOURNÉE, LES "MYSTÉRIEUSES COIFFURES" VOUS FERONT TOURNER LA TÊTE !



Zikiroa

URTERO BEZALA, HERRI-ZIKIROA PRESTATUKO DIZUEGU IGANDEKO BAZKARIARENTZAT, EHLGREN ESKUTIK ! GIROAN SARTZEKO, KLI-K TXARANGA BAZKARIAN EGONEN DA: TRIKIAK, ATABALAK ETA BOZAK EZ DIRA FALTAKO. EZ AHANTZ GOIZEAN GOIZ JITEA LEKUAK ERRESERBATZEKO !

COMME CHAQUE ANNÉE, EHLG VOUS PROPOSERA UN ZIKIRO LE DIMANCHE MIDI DU FESTIVAL ! POUR VOUS METTRE DANS L'AMBIANCE, LA TXARANGA KLI-K ANIMERA LE REPAS AVEC SES TRIKIS, TAMBOURS, TXISTU ETC ! N'OUBLIEZ PAS DE VENIR ASSEZ TÔT POUR RÉSERVER VOS PLACES !

Haurren xokoa

Coin enfants

AURTEN, SEKULAN BAINO GEHIAGO HAURREK HEIEN LEKUA UKANEN DUTE EHZ FESTIBALEAN. PROGRAMAZIO ABERATS ETA ZABALA PROPOSATZEKO NAHIAREKIN ANTOLATU DUGU LARUNBAT ETA IGANDEAN IRAGANEN DEN EGITARUAU, TTIPI ETA HAUNDIEK, ERABE ETA AUSARTEK, AITAMEKIN EDO GABE, BAKARRIK EDO TALDE JOKOETAN, BAKOITZAK BERE MOLDEAN PREZIATZEKO GISAN. GOIZEKO 10AK T'ERDITATIK ARRATSALDEKO 6AK ARTE HURBILTZEN AHALKO DIRA HAURRAK LAGUNTZAILE ETA KANPOKO ARTISTEK PROPOSATUKO DITUZTEN AKTIBITATEEKIN GOZATZERA. 14 URTE ARTEKOENTZAT SARRERA URRIRIK IZANEN DA. AURTEN LEHEN ALDIZ IZEN EMAITEAK IZANEN DIRA AITZINETIK WEBGUNEAN ANTOLAKETAREN ERREXTEKO GISAN.

CETTE ANNÉE, LES ENFANTS AURONT PLUS QUE JAMAIS LEUR PLACE AU FESTIVAL EHZ ! NOUS VOUS PROPOSONS UNE PROGRAMMATION PARTICULIÈREMENT ALLÉCHANTE DU SAMEDI AU DIMANCHE. DES ATELIERS ET ANIMATIONS SERONT ORGANISÉS AU COIN ENFANTS, POUR PETITS ET GRANDS. SEULS OU À PLUSIEURS, CHACUN Y TROUVERA SON COMPTE ! DÈS 10H30 DU MATIN JUSQU'À 18H00 DE L'APRÈS-MIDI AFIN DE DÉCOUVRIR LES SURPRISES CONCOCTÉES PAR NOS BÉNÉVOLES ET LES ARTISTES INVITÉS. N'OUBLIEZ PAS, L'ENTRÉE EST GRATUITE POUR LES MOINS DE 14 ANS ! AFIN DE FACILITER LE DÉROULEMENT DE CERTAINS ATELIERS, UNE INSCRIPTION EN LIGNE SERA POSSIBLE !



Hitzaldiak

Conférences

KAPITALISMOA ETA OSASUNA : DENAK EROAK OTE GIRA?

CAPITALISME ET SANTÉ : SOMMES-NOUS TOU-TE-S FOUS/FOLLES ?

Bere garapena tratatzen duten pertsonak kontrolatzeko eta baztertzeko, Kapitalak eta estatugintza sistemak osasungintzari egiten duen erabilpenari buruzko gogoeta. Osasungintzarui buruz ezagutzen diren kritika kolektiboetako kideak hor izanzen dira, tartean anti-psikiatria kolektiboak adibidez. Autoeratutako edota komunalki eramandako osasungintza esperientziak trukatu ditugu.

Sistema huntan, erotasuna disidentzia politiko gisa ulertzen ahal ote da?

Réflexion sur l'utilisation de la santé par le Capital et le système étatique, pour contrôler et exclure les éléments gênants son propre développement. Présence de collectifs de réflexion sur la santé, et notamment des collectifs de réflexions sur l'anti-psychiatrie. Echange autour d'expériences d'autogestion de la santé. Dans ce système, peut-on comprendre la folie comme une dissidence politique?



KURDISTAN EMAZTEEK BURUJABETZEN

KURDISTAN, UNE SOUVERAINETE FEMINISTE

Ezker kurduak konfederalismo demokratikoa hautatu ondotik, nola antolatzen dira gerrillan, arlo politikoan, herri elkarteetan dabiltzan emazteak? Jendarte kurduan feminismoa eta parekidetasuna bultzatzeko zein indar eta bitarteko erabiltzen dituzte, nor dute bidelagun eta etsai?

Hizlariak:

- Michelle Allison KNK Kurdistaneko Kongresu Nazionalako emazteen bozeramailea.

- KJA emazteen kongresu askearen gomitari erantzunez, martxoaren 8a kari Frantziatik Kurdistanera joan delegazioko bi kide.

Suite à l'adoption du confédéralisme démocratique par la gauche kurde, comment s'organisent les femmes dans les guérillas, le domaine politique ou les associations populaires? Quels moyens et forces possèdent-elles afin de développer le féminisme et la parité au sein de la société, qui sont leurs alliés et leurs ennemis?

Intervenantes:

- Michelle Allison, représentante des femmes du KNK (congrès national du Kurdistan).

- Deux membres d'une délégation partie au Kurdistan à l'occasion du 8 mars, à l'invitation du congrès des femmes libres KJA.



NOTRE-DAME-DES-LANDESKO ZAD :
LURRALDE BURUJABERANTZ

NOTRE-DAME-DES-LANDES, VERS UN
TERRITOIRE SOUVERAIN

ZAD gune sutsua bilakatu da azken hamarkadan, baina aireportu baten kontrako borroka baino askoz gehiago bilakatu da bertan diren ehunka biztanle aktibistentzat. Kapitalismotik kanpoko bizitza eredu baten hazia da, elkartasunean eta auto-kudeaketan. Nola gauzatzen dute bizimodu hori ?
Hizlariak : ZADeko biztanle-okupatzaile talde bat.

La ZAD a connu des événements importants ces dernières années. Pour les centaines d'activistes qui ont fait le choix de s'y installer, il s'agit d'une démarche bien plus vaste que l'opposition à un aéroport. C'est le germe d'une vie sans modèle capitaliste, par la solidarité et l'autogestion. Comment s'organise cette façon de vivre ?
Intervenants : Les habitants-occupants de la ZAD



“BURUJABE, BURUGABE, BURUJALE”

MAHAI INGURU AKTIBOA - DÉBAT PARTICIPATIF

Euskal Herrietan, gaur egun, pertsona eta kolektibo batzuk burujabetzaren alde borrokatzen eta antolatzen ari dira: Kooperatiba eraldatzaileak, Autonomia Komunala eta Lurralde Askea, besteak beste. Zer proposatzen eta egiten dute? Zerk egingo gaitu burujabe, burugabe eta burujale izan gabe?
Hizlariak: Autonomia Komunala, Kooperatiba eraldatzaileak eta Lurralde Askeako jendea

Actuellement, au Pays Basque, certaines personnes et collectifs s'organisent et luttent en faveur de plus d'autonomie et de souveraineté : Kooperatiba eraldatzaileak, Autonomia Komunala et Lurralde Askea, entre autres. Que proposent-elles et comment agissent-elles ? Qu'est-ce qui nous rendra souverains?

Intervenants : des personnes représentant Autonomia Komunala, Kooperatiba eraldatzaileak et Lurralde Askea



SUKALDETIK PLAZARA

DOKUMENTALA / DOCUMENTAIRE

« Sukaldetik plazara » dokumentala proiektatuko dugu eta ondotik eztabaida bat proposatua izanen da filman parte hartzen dutenekin.

Le documentaire « Sukaldetik plazara » sera projeté au château, s'en suivra d'un débat en présence des participantes au film.

Hizlariak/ Intervenantes: Alaia Berhonde (PAFI), Miren Aranguren (Bilgune Feminista) eta Xane Krekelberg (Emazteek Diote)

Tailerrak Ateliers

O KUPAZIO TAILER BAT EGINEN DA ! TEORIATIK PRAKTIKARA PASATU NAHI DUZU ? ETXEBIZITZA BATEN OKUPAZIO SIMULAZIO BAT, ETA HORTIK JALGIKO DIREN GALDERA JURIDIKO ETA PRAKTIKOEN AIPAMENA IZANEN DA. TOULOUSE HIRIKO CREAKOEN. BESTALDE, **SERIGRAFIA TAILER** BAT PROPOSATUKO DIZUEGU, NDDL-EKO ZADISTEN ESKUTIK ! ZURE ARROPAK ETA MARRAZKI EDO LEMAK EKARRI, SERIGRAFIATZEN IKASI ETA ARROPEKIN JOAN. **FEREKATZE TAILER** BAT ERE PROPOSATUKO DUGU, NORBERE BURUA ETA ELKAR GOXATZEN IKASIKO DUGU (GUET GASTEIZKO UNIBERTSITATEKO EMAKUME TALDEAREKIN ELKARLANEAN).

P ARTICIPE À NOTRE **ATELIER SQUAT** ! ON Y TROUVERA DES MISES EN SITUATION DE SQUATS, DES RÉPONSES AUX QUESTIONS JURIDIQUES ET PRATIQUES. TOUT CECI SERA ORGANISÉ AVEC LES CAMARADES DU CREA DE TOULOUSE. AUSSI, UN **ATELIER SÉRIGRAPHIE** SERA PROPOSÉ AVEC LES ZADISTES DE NDDL. AMÈNE TES FRINGUES, TES DESSINS OU TES SLOGANS, APPRENDS À SÉRIGRAPHIER, ET REPARA AVEC TES FRINGUES ! UN **ATELIER DE TENDRESSE** SERA PROPOSÉ ; ON DÉCOUVRIRA COMMENT SE PROCURER DE LA TENDRESSE ET COMMENT EN PROCURER AUX AUTRES (PAR LE GROUPE FÉMINISTE DE LA FACULTÉ DE GASTEIZ).



Euskal Herria Zadista

AGORRILAREN 20TIK 28RA EHZREN AUZOLAN ETA TOPAKETA BRIGADA BAT JOANEN DA NOTRE-DAME-DES-LANDES EREMUKO ZADISTEKIN ELKARTZERA. ZADEN BADIRA HAINBAT GUNE (BARATZE KOLEKTIBOA, HARRERA LEKUA, EMAZTEEN TXOKOA, LOTOKI BAT...) ESKU KOLPE BAT EMAN DIEZAIEGUN INTERESATUAK DIRENAK, PIXKANAKA ZEHAZTUKO DUGU HAIEKIN BERTAN ZER EGIN. BRIGADA HONEN XEDEA EUSKAL HERRIKO JENDEA ZADEN BIZI DIRENEKIN ELKAR TOPATZEA DA ERE, BAITA BERTAKO ANTOLAKETA ETA EKOIZPEN BEREZIAK ZUZENEAN EZAGUTU DITZAGUN, BERAZ EZ DA DENA LANA IZANEN. INTERESATUA BAZIRA, EMAN IZENA --- HELBIDERA IDATZITA. EHZ - ARY ERAIKUNTZA - 64240 HAZPARNE

DU 20 AU 28 AOÛT UNE "BRIGADE" D'EZH IRA SUR LA ZAD DE NOTRE-DAME-DES-LANDES AFIN DE RENCONTRER LES ZADISTES ! LÀ-BAS, NOUS PARTICIPERONS À DIFFÉRENTS CHANTIER (JARDIN COLLECTIF, ACCUEIL, GROUPE FÉMINISTE, DORTOIR ETC.). LE BUT DE CETTE EXPÉRIENCE EST DE MIEUX CONNAÎTRE LES PERSONNES QUI VIVENT SUR LA ZAD AINSI QUE LEUR MODE DE VIE, LEUR ORGANISATION, LEURS INVENTIONS ET CONSTRUCTIONS. SI TU ES INTÉRESSÉ PAR L'AVENTURE, INSCRIS-TOI À CETTE ADRESSE : EHZ - BÂTIMENT ARY - 64240 HASPARREN.

EHZ Ubela


AURTEN ERE EGITARAU FEMINISTA BAT PROPOSATUKO DIZUEGU. «SUKALDETIK PLAZARA» DOKUMENTALA PROEIKTATUKO DUGU ETA ONDOTIK EZTABAIDA BAT PROPOSATUA IZANEN DA FILMAN PARTE HARTZEN DUTENEKIN. BESTALDE, FEREKATZE TAILERRA (GUET TALDEAREKIN) ESKAINIA IZANEN DA GAZTELUAN, NORBERE BURUA HOBEBEKI EZAGUTZEKO PARADA IZANEN DA ! HIRU EGUNETAN PUNTU UBELA IDEKIA EGONEN DA. LEKU GOXO HONTAN DISKRIMINAZIOA DESBERDINAZ HITZ EGITEKO PARADA IZANEN DA ; DOKUMENTAZIOA ERE EGONEN DA. ERASO SEXISTARIK GABE, PESTA GOZATU !

CETTE ANNÉE ENCORE LE FESTIVAL A UNE PROGRAMMATION FÉMINISTE ! LE DOCUMENTAIRE « SUKALDETIK PLAZARA » SERA PROJETÉ AU CHÂTEAU, S'EN SUIVRA D'UN DÉBAT EN PRÉSENCE DES PARTICIPANTES AU FILM. AUSSI, UN ATELIER DE TENDRESSE SERA OFFERT À TOUS (PAR LE GROUPE FÉMINISTE GUET) ; AFIN D'APPRENDRE À MIEUX CONNAÎTRE NOS CORPS ! DURANT LES TROIS JOURS UN COIN FÉMINISTE RESTERA OUVERT, UN ENDROIT DE PARTAGE POUR ÉCHANGER SUR TOUTES FORMES DE DISCRIMINATIONS ET OÙ CHACUN POURRA VENIR S'INFORMER À L'AIDE DE DOCUMENTATION. AU FESTIVAL, NON AUX AGRESSIONS SEXISTES !

EHZ Berdea

EHZ INGURUMENARI ATXIKIA ZAIO ; HALA, 25 KOMUN IDOR ERAIKI ETA ERABILTZEN DITUGU, BASO BERRIAK BAKARRIK ERABILTZEN DITUGU, DESMUNTAKETA BUKAERAN ZIGARRETA MUTUR BILKETA BAT ANTOLATZEN DUGU ETA FESTIBALARIAK HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARA SENSIBILIZATZEN DITUGU. PROPOSATUA DEN JANARIA TOKIKOA EDO/ETA BIOLOGIKOA DA, INGURUKO EKOIZLEAK BALORIZATUZ ETA TOKIKO GARAGARGOAK ETA EDARI ALTERNATIBOA LEHENESTEN DITUGU.

L'ENVIRONNEMENT EST UN DES PILIERS DU FESTIVAL ; AINSI EHZ A CONSTRUIT ET UTILISE 25 TOILETTES SÈCHES, UTILISE DES BASO BERRI (VERRES RECYCLABLES), ORGANISE UNE COLLECTE DE MÉGOTS À LA FIN DU DÉMONTAGE ET SENSIBILISE LES FESTIVALIERS SUR LE RECYCLAGE DES DÉCHETS. LA NOURRITURE SUR SITE EST LOCALE ET/OU BIOLOGIQUE EN VALORISANT LES PRODUCTEURS DES ENVIRONS ET EN METTANT EN AVANT BIÈRES LOCALES ET DES BOISSONS ALTERNATIVES.





BADOK berria



GROUPE AGUIRREBARRENA

Aingira - Izokina - Kolaka - Lanproia
05 58 77 12 26
www.aguirrebarrena.com

Spécialisé dans la pêche artisanale • Gure erreketako arrainetan berezitua

Intermarché SUPER HASPARREN
05.59.29.16.76

leDRIVE Intermarché

FAITES VOS COURSES SUR www.intermarche.com

TOUS UNIS CONTRE LA VIE CHÈRE

Margola

Tindu eta berniza fabrika eta salmenta

ZA des Pignadas 64240 HASPARREN/HASPARNE
pierre.amestoy@margola.fr / Téléphone : 05 59 29 45 67

Goicoechea
MANUFACTURE DU PAYS-BASQUE
LUR UNTZI LANTEGIA

DÉCOUVREZ NOTRE COLLECTION SUR
www.poterie-goicoechea.com

0555 80 98 / Route de Saint-Jean-Pied-de-Port
SAINT-JEAN-DE-LUZ / Floor Loers XIV

EHZ

SORGIN ZELAIAN,
GUREA ASMA

Coin conference
EZTABAIDA GUNEA

UZTAILAK
1/2/3
JUILLET

Pendant
3 EGUNEZ
3 jours



Coin enfant
HAURREN XOKOA



Brigade Ubela
GUNE UBELA



TAILERRAK
Ateliers



ANIMAZIOAK
Animations



APARKALEKUA
Parking
URRIRIK / Gratuit



BERTAKO PRODUKTUAK
Produits locaux



AKANPALEKUA
Camping
URRIRIK / Gratuit

PREZIOAK
Prix de vente

OSTIRALA
Vendredi

LARUNBATA
Samedi

IGANDEA
Dimanche

AURRESALMENTAN
Prévente

25 €

25 €

10 €

TOKIAN BERTAN
Sur place

30 €

30 €

12 €

3 EGUNEKO SARRERA 50€AN ! • LE PASS 3 JOURS À 50€ !

SARRERAK - Billeterie
ehzsarrerak.aking.eu

WEBGUNEA - Site web
ehz-festibala.eu

